

Euskal itzultzaile ezezagunaren omenez

Zaila da imajinatzea nondik inguratu zezakeen joan den mendearen hogeita hamarreko urte hasiera haietan gazte euskaldun batek ingelesez idatzitako liburu bat. Edo ez zuen ingelesezkoa inguratu, gaztelaniazkoa baizik... Hori ez da hain zaila imajinatzen, izan ere Bartzelonako *Juventud* argitaletxeak argitaratuak baitzituen aurreko hamarraldian Peter B. Kyne-ren hainbat eta hainbat eleberri. Kontua da behintzat inguratu zuela ingelesez edo gaztelaniaz 1921ean Estatu Batuetan *The Go-Getter* izenburupean argitaratua zen eleberri labur bizia.

Beharbada, gazte lagun bategi emango zion haren aztarna gure gazteari edo irakurzaile helduagoren batek bestela. Beharbada, liburu-dendaren baten erakuslehoan ikusiko zuen, demagun Donostian. Gipuzkoan behintzat. Tira, gerta zitekeen Madrilan edo beste hiri handiren batean ikasten ari zela ikusia izatea.

Baina inongo dudarik gabe gipuzkoarra da gure gaztea. Giputza hizkeraz esan nahi dut, eta Beterriko mugapetik oso urrutikoa ere ez. Hizkerak salatzen du.

Gaztea zela esan dut eta hori ere ezagun du itzulpena irakurrita. Oinarri sendoak ditu, baina hankamotz samar geratzen da inoiz edo behin esapideren batean edo bestean, erabat doitu gabeko lumaren erakusgarri. Izerdi pixka bat aterako zuela iruditzen zait, zurruntasunik ez txertatzeko euskal ordainari. Sarri, esaldi luzeak eta laburtu egiten ditu, oso gogoan du orduko irakurle euskalduna. Egokitzaile da itzultzaile baino gehiago. Askotan ematen du euskaraz sortutako lan baten aurrean gaudela. Izan ere, bai hizkuntza bizia, bai ahozko iturri garbia elkarrizketetan pasaratzen diguna. Badu giharra eta kontakizuna aurrera eramateko jostun pultsua.

Aieruz eta suzmoz ari naiz, ordea, berak ez baitu ia ezer argitzen: “Peter B. Kyne-k englanderaz idatzia eta ARGIAren irakurle batek euskeratua”. Hori besterik ez. Hortik ezin atera dezakegu ez oharra berak idatzi zuenik ezta “englanderatik” zuzenean euskaratu zuenik ere. Kontua da behintzat liburua irakurri, gustatu, eta euskaratzea erabaki zuela egunen batean. Euskara bera herdoiltzen ari zitzaioela eta zertxobait lantzeko, euskaldunek katiximaz haragoko irakurgai atsegini izan zezaten edo nik al dakit zergatik. Kontua da, hortaz, garai hartan bizi zen –gazte batzuek bizi zuten– euskal pizkundean murgilduta euskara atsegin-soinekoz jantzita ikusi nahi izan zuela, eta lanari ekin ziola.

Urte miragarri haietan, hiru egunkari ari ziren orri bana hartuta euskarazko gauzak argitaratzen. Bilboko *Euzkadin* Lauaxeta ari zen, Donostiako *El Dían* Luzear, eta *El Pueblo Vascon* Zubimendi. Beharbada gure gazteak horietako batean argitaratuak izango zituen artikulutxo batzuk. Horietako batean izatekotan, *El Dían* seguruen, gipuzkoarra izaki. Zubimendiren orria astean behin ateratzen zen eta asko berak betetzen zuen. *El Díar*ako idazten ibili baldin bazen, Ander Arzelus ezagutuko zuen. Donostiarraren itzulpenarako grina eta gazteak bultzatzeko ahaleginaren berri jakinda, ez dirudi burugabea pentsatzea Arzelusek berak bultzatu zuela lan hori itzultzerara. Arzelusek berak englanderatik itzuli eta argitaratu zuen, 1931n, Dickensen *Eguerri Abestia* epeka. Lan gehiago ere agindu zituen. Junes Vernerren *Larogei egunean, ludiari bira*, esate baterako. Inoiz ez zen argitaratu “goikoek” –euskararen kontuetan beti badago goikoren bat– hainbat aitzakia emanda ez ziotelako utzi. Baina goikoen epaia jaso aurretik agindu ziezaiokeen gure gazteari: “hi gazte, hire gustukoren bat, politta izan dadila, eta ez oso luzea”. Ezina gero etorriko zen. Ordurako ordea hasi-masietan edo erabat bukatuta, eta nonbait argitaratu nahi hark ere. “Ekatzak, gazte, Argian neronek argitaratuko diat eta”.

Aieruka ari naiz. Barkatuko didazue.

Hainbeste itzuli-mitzuli eman gabe, Arzelus bera ez ote lan honen itzultzailea? Hasieran hala pentsatu nuen. Hizkuntza gainetik aztertuta, ordea, ezinezkoa dela esango nuke. Honek erabiltzen dituen laburtze eta fonetismoak ez lituzke donostiarrak beretzat onartuko. Arzelusekin elkarlanean aritu zen beste bat, Joxe Migel Zumalabe. 1936ko zorigaitzeko liskarrean galdu omen zitzaion Junes Vernerren itzulpen bat. Hura gaztea zen. Donostiarra. Izan zitekeen. Nork daki?

Aieruka ari naiz. Ez ahaztu. Ez baitaukat bestelako daturik.

Dakidan bakarra da, gazte, zahar edo bien arteko, euskaldun batek, 1935 aurrean, Kyne bezalako best-seller idazle bat hartu, sona handiko liburua eskuratu eta euskaratu ondoren *Argiakoei* eman ziela. Eta *Argiakoei* 1935eko *Argia* 'ren *Egutegian* irakurgai atsegin gisa argitaratu zutela, *Garailea* izenburuarekin. Egutegi hartan bertan orri osoko ohar bat erantsi zuten: “Garailea. Aurreraxeago irakurri zenezateke izen onetako irakurgai. Peter B. Kyne-k englanderaz idatzia da ta gero erderara itzulia. Onoko aukeratuak ere idazle berarenak dira ta Editorial Juventud S.A-k (Apartado, 3 - Barcelona) argitaratuak: 5,90 laurlekotan: *El señor del Valle Solitario*; 5,50 laurlekotan: *Un corazón comprensivo*, *El rancho “Arroyo Chico”*, *El avasallador*, *Amanecer*, *Tambien ellos sirven*, *Los proscritos del paraíso*, *Tamoa*; 3,90 laurlekotan: *La cuesta encantada*, *El primero de a bordo*, *Cappy Ricks se retira*, *El orgullo de Palomares*, *Llovida del cielo*, *Todo un Hombre*, *El valle de los Gigantes*, *El capitán Scraggs*; 2 laurlekotan: *De un mismo barro*; Laurleko batean: *Los tres padrinos*, *El más feo*, *El Sheriff*”.

Ikusten denez, idazle oparoa behar du izan Kyne-k. Bere lan asko eta asko western-eleberriak dira, izenburuak berak daude esaten. San Franziskon jaio zen XIX. mende bukaera aldera. Bere lanik ezagunena eta famatuena *Kindred of the dust* izan zen hogeietako urteetan best-seller izatera heldua. Zinemarako gidoi idazlea ere izan zen. Gaur argitaratzen dugun *Garailea* eleberri honetako pertsonaietako bat, Cappy Ricks, beste eleberri batzuetan ere agertzen da, eta bere abenturak *Saturday Evening Post* aldizkarian argitaratu ziren aurrena epeka. 1957an hil zen Kyne.

Gauza bitxia da mundua, eta itzulinguru asko ematen dituena. 1921ean Estatu Batuetan argitaratu, Euskal Herrian 1935ean “gazte batek” ausaz ariketa gisa aldizkari xume batean euskaratua eman, eta oraintxe esku artean dudan gaztelaniako edizio batean jartzen duenez “un clásico del mundo de la empresa con más de 500.000 ejemplares vendidos en todo el mundo” bilakatua. Ez dago enpresaren azti-xaman batek hartzea bezalakorik liburuak abasto eta erruz saltzeko. Enpresaren xamana Alan Axelrod da eta gaztelaniako bertsio atera duen argitaletxea Algaba. 2003koa da eskuratu dudan edizioa, *El buscavidas* du izenburu, eta honako kopia hau erantsi diote azpian: “un relato clásico que cuenta cómo llegar a ser el número uno”. Nonbait Axelrod jaun azti horrek ikusiko zuen eleberri honetan zeudela gisako enpresa batek behar duen langile eredu otzan eta onaren bertute nagusiak, eta, liburuaren bertsio bat eginez (alegia, jatorrizko testua ukitu eta zenbaitetan aldatuta!), boladan dauden enpresario nahi guztien gogo-jardunetarako oinarrizko testu bihurtua zuen, hitzatze lerdetario aholkuemaile nazkagarri bat erantsita.

Gorde gaitzen liburu bakarreko jendeaz...

Hain zuzen ere, hitzatze horrek erakutsi nahi duen handiustekeria guztien kontrako txertoa izan nahi du gure argitalpen xume honek. Itzultzaile gazte bat, ezezaguna, orain hirurogeita hamar urte, era honetako gauzarik egiten ez zen garaian, kontakizun atsegin bat hautatu eta eskaini nahi izan ziela orduko euskaldunei ospatzeko argitalpena da hau, orain guk orduko haren lekukoa jaso, eta, haren omenez –euskal itzultzaile ezezagunaren omenez– egindakoa.

Inazio Mujika Iraola

2005eko uztailean